



MAÑERUKO ESKOLAN ITXIALDIA

Abenduaren 15ean Vasceucearen legeak 25 urte betetzen ditu, eta euskarak behar duen estatus juridiko egokia aldarrikatzeko Sortzen Ikasbatuazetik ekimena prestatu dugu Mañeruko herrian. Mañerun eskola zuten, baina herritarrek euskaraz ikasi nahi zuten eta legearen arabera zonalde “ez” euskaldunean kokatua dagoenez, Nafarroako Gobernuak eskola itxi eta haur guztiak egunero bidaiatzera derrigortu zituen, horrek dakarren ezerosotasun eta arrisku guztiekin.

Lege hau iraganen oinarritutako legea delako, Mañeruko eskolan itxialdia egingo dugu zonalde “ez” euskalduneko guraso zein herritarrekin abenduaren 16, 17 eta 18an, herri eta auzo guztietan euskarazko irakaskuntza aldarrikatzeko.

Horretarako ekitaldi kultural zabala prestatu dugu bertako udalarekin bat eta izango diren ekitaldietan zein itxialdian parte hartzea gonbidatu nahi zaitugu eskutitz honen bitartez. Ekimenaren garrantziaz jabetuko zarela, bertan elkar ikusiko dugula ziur gaude, eta bien bitartean gure agurrik beroena bidaltzen dizugu, mezu hau zabaltzeko konpromisoa eskatuz.

Abenduak 16	Abenduak 17	Abenduak 18
11:30 Porrotx 13:30 Harrera ekitaldia 18:30 Herri kirolak eta joaldunak	10:30 Hezkuntza eta hizkuntza eragileekin bilera 11:30 Otamena 12:00 Kontzertu didaktikoa (Ataitz) 13:30 Joxe Miel Bidadorren poema musikatuak 14:30 Herri bazkaria (*) 17:30 Trikipotea 20:00 Karaokea 23:00 Kontzertua	11:00 Alderdi politikoeekin bilkura 11:30 Dantza Taldea 12:00 Ipuin kontalaria 13:00 Asanblada eta Mañeruko adierazpenaren aurkezpena

*Herri Bazkarirako txartelak eskuratu: Mañeruko Circulo tabernan edo 630631120 telefono zenbakira deituz (txikiak 8 € - helduak 15 €).



KONTSEILUKO V. JARDUNALDIAK

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bere V. Jardunaldiak antolatu ditu abenduaren 16rako Donostiako Miramar jauregian.

Oraingoan “**Haur hezkuntzaren garrantzia euskararen jabetuntzan eta garapenean**” izenburupean izango dira eta honako hauek izango dira, besteak beste:

- Ikasle euskaldun eleaniztunak lortzeko Kontseiluak adin-tarte horretarako duen proposamena (**Paul Bilbao – Kontseiluako idazkari nagusia**)
- Arlo emozionalak edota enpatiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen garrantzia (**Karme Perez – Mondragon Unibertsitatea**)
- Haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzeko KGNZ tresna (**Andoni Barreña - Salamancako Unibertsitatea; Marijo Ezeizabarrena – EHU; Iñaki Garcia – Mondragon Unibertsitatea**)
- Ikastetxeetako praktika onak (**Euskal Herriko ikastolak, EHIGE, Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuaz**)
- Mahai ingurua : **Maria Jose Azurmendi (psikologoa), Paulo Iztueta (soziologoa) eta Karme Perez (didaktikaria)**
- Haur Hezkuntzako 0-6 aldiko hizkuntza murgiltzeari begirada bat: esperientziak eta hausnarketak (**Vanesa Amat eta Llorenç Comajoan – VICeko Unibertsitatea**)



MAÑERUKO ESKOLAN ITXIALDIA

Lehen urtea bete du dagoeneko Irrien Lagunak Klubak. Elkar, Berria eta Katxiporreta taldeek sortutako proiektu hezitzaileak iazko azaroan ikusi zuen argia, Pupu eta Loreren jaiotzarekin batera. Sudur gorri txikiak denon artean euskaratik eta euskaraz hezteko, haur eta gurasoentzat klub berria sortu zen, eta hainbat alorretan bidea eginez eman zituen lehen pausoak.

Orain, proiektuaren lehen urteurrenarekin bat eginez, Irrien Lagunak Klubak ekimen eta kanpaina berriak ditu esku artean. Zehazki, **Sortzen-lkasbatuaz** elkarteko guraso izateagatik, urtarrilaren 6a baino lehen Irria aldizkariaren harpidetza egiten duten lagun guztiei, bi opariren artean aukeratzeko eskaintza egiten digute: *motxila edo Pupu eta Loreren bainu-bata*.

Irria aldizkaria, haurrentzako 48 orrialde koloretsu dituen hilabetekaria da eta, Sortzen-lkasbatuaz elkartekoek Irrien Lagunak proiektuarekin bat egiten dugun heinean, zuen seme-alabak harpidetzeko eskatu nahi dizuegu.

HARPIDETZEKO DEITU **902 820 806** telefonora.



Irrien Lagunak Klubeko txartela jasoko duzu.

Zozketetan parte hartzeko eta deskontuak jasotzeko balio du.

Bestelako informazioarako: www.irrienlagunak.com



DURANGOKO AZOKA

Aurtengoa gure zortzigarren urtea izango da Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokan.

Bertan, besteok bezalaxe, gure materiala salgai jartzen dugu, baina ez dugu gure stand hori saltoki bezala bakarrik ikusten. Gerturatzeko zaretan guztiok, gure materiala kuxkuxeatzeaz gain, elkarteko informazio, gure produktuen katalogoa, gure proiektuen informazioa,... eskura dezakezue.

Orain arteko materialaz gain (*Jolas Tailerrak, Kontu txikiak, Kazeta proiektua, Buruketak Lehen Hezkuntzan, Etorkinak eskolan, Hezkuntza ekimenen Katalogoa*), beste hainbat material berri izango ditugu:

- 📖 **Ene kantak:** 19 abesti dituen CD eta DVDan 16 berriak dira (HH eta Lhrako kantak dira). Kanta bakoitzak bere koreografia du eta DVDan ikus daitezke. Proiektuan jende asko aritu da. Hala nola: Gorka Urbizu, Pirriortx eta Porrotx, Oier Sanjurjo, Asier Riesgo, Tiko, Bittor Alkiza, Juan Martinez de Irujo, Estitxu Arozena,...
- 📖 **Palestinako unitate didaktikoa:** Arbizuko eskolan martxan duten proiektuaren unitate didaktikoa da.
- 📖 **Palestinako unitate didaktikoaren ipuina:** Unitate didaktikoan erabiltzen den ipuina da.
- 📖 **Jaiaren ipuina:** Gure urteroko jaiari begira sortutako ipuina da.
- 📖 **1512 mapa:** Nafarroako konkistaren urteurreneko mapa da.
- 📖 **2011-2012 ikasle agenda**

Pasa zaitetze Durangoko azokako Artekale 83tik eta bertan izango gaituzu.

(Informazio gehiago, edo zehatzagorik behar izanez gero, jo ezazu gurera eta helaraziko dizuegu)